

Pentsatzea



Joxemari CARRERE
Ipuin kontalaria

Zertarako balio du antzerkiak? Faxismoaren ostertz izoztua, predazio neoliberal, kapitalozenoa, gure sakontasun guztien konfiskazioa: zertarako balio du antzerkiak, segur aski ezin badu ezer egin antzezlan baten ostean? Hala hasten da Olivier Neveux idazleak argitaratu berri duen "Brecht et les mauvais temps nouveaux" saiakera. Brechten antzerkigintza abiapuntu hartuta, antzerkiaren eta poli-

tikaren arteko harremana aztertzen du. Antzerkigile alemanaren ideia nagusia ezarritako ordena suntsitzea izanik, Neveuxek hortik helduko dio, hots, antzerki politikoaren gogoetatik. Brechten ideiatik abiatuko da, antzerkiaren erabilpenak beste jendarte baten bilaketan izan dezakeen lekuaz eta arrazoiak gogoeta eginez. Egileak, antzerkigilearen bidetik, argi dauka antzerkiak ez duela mundua aldatuko, orduan, eta berriro galdera: zertarako?

«Antzerkiak pentsatzearen beharra azaldu behar du», dio Brechtek. Eta horrek antzerkigintzatik kontalaritzarako bidean jarri nau. Zertarako balio du kontalaritzak? Bizi garen mundu aldrebes honetan, non kapitalismoa, neofaxismoa, nobreakeria eta militarismoa gizateriaren suntsiketaren adierazle diren, zertarako ipuinak kontatu? Kontaketa saio baten ostean zer gelditzen da? Agian horixe, pentsatzeko beharra. Zertarako bestela.

«Ene Jesus» nobelaren argitalpen bikoitza dakar Ramon Saizarbitoria

Hirugarren «bizitza» du Ramon Saizarbitoriaren «Ene Jesus» lanak. 50 urte joan dira idazleak bere hirugarren nobela argitaratu zuenetik eta edizio gaurkotua prestatu du Ereinek. Horretaz gain, Joxean Muñozek egindako hurbilpen grafiko-artistikoa ere eskuratu dezake irakurleak bigarren argitalpen batean.

Xole ARAMENDI | DONOSTIA

«Horregatik dago liburua bizi-rik, 'fantasmak eskutik helduta' idatzita dagoelako; horregatik da gomendagarria, txit gomendagarria gaur ere, idazleak bilatu zuelako euskara eskastu bat gizakiaren eskastasun berezkoan sakontzeko, aurkitu zuelako ezintasunetik nobela gogoangarri bat eraikitzeko modua. Liburu ondardua da. Gordina. Ederra. Beharrezkoa. (...)», Joxean Muñozek hala dio Ramon Etkezaretak eta Josu Zabaletak atondutako «Ene Jesus»-en edizio berriaren hitzaurrean.

Nobelarekin duen loturaren berri eman zuen Muñozek. «Badira irakurlearengan modu berezian txertatzen diren liburuak, berak zergatik ez dakiela. Ez du zertan libururik onena edo hunkigarriena izan. Berea du irakurleak. Niretzat 'Ene Jesus' da eta bizitzan askotan jo dut liburura. Liburu fetitxea da niretzat. Ereinek bazekien eta hitzaurrea eskatu zidan. Liburuari zer ikusten nion azaldu nahi izan diot irakurleari, eta orain berriz irakurrita zenbateraino sentitzen dudun lehenagoko lilura. Oso garaiko modernitatean kokatua da. Sakonki denbora bati errotutako lanek eusten diote denborari. Ez da liburu zaila, giltza aurkitu behar da. Ez da supermerkatuetan aurkitu daitekeena, berezia da. Giltza aurkitzean erraz joango da irakurketa, nahiz liburu gogorra den». Bakarrik ala Joxean



Ramon Saizarbitoria eta Joxean Muñoz, atzo. Gorka RUBIO | FOKU

«ITXURAKERIAK EZ»

«Nobela bitxia eta modernoa; horrela kalifikatua izan da 'Ene Jesus'. Ezin nuen egin itxurakeriarik. Kontatzeko nuena ezin nuen beste modu batera egin. Modu beckettiarrean egin da; ez nuen ikusi modu duinean kontatzeko beste biderik. Ez dago modernoa izateko nahirik», argitu zuen atzo Saizarbitoria.

Muñozek nobelari egindako hurbilpen grafiko-artistikoarekin batera eros daiteke Erein argitaletxearen eskutik. «Mutu» geratu ziren irakurleak «Ene Jesus» argitaratu ondoren. «1976an irakurria izan zen 'Ehun metro'-rekin -1974an idatzia, bahitu egin zuten- eta azken honek oihartzun handiagoa izan zuen», gogoratu zuen Inazio Mujika Iraola editoreak. Eta mutu idazlea ere, hemeretzi urte pasatu baitzituen Saizarbitoria beste nobelarik argitaratu gabe. Ereinek 1994an egin zuen «Ene Jesus»-en bigarren edizioa.

Familia eta patua Familia batean jaio eta bizitzeak nola markatzen gaituen jaso nahi zuen idazle donostiarrak nobela. «Ama -maitea bezain tristea- familia... horren inguruan idatzi nahi nuen».

Patua da liburuan landutako gaietako bat. «Nola patu izugarria saihestu ezinean seme gizajoak aurea hartu beste ahalbiderik ez duen». «Nobela bitxia eta modernoa; horrela kalifikatua izan da 'Ene Jesus'. Ezin nuen egin itxurakeriarik. Kontatzeko nuena ezin nuen beste modu batera egin. Modu beckettiarrean egin da; ez nuen ikusi modu duinean kontatzeko beste biderik. Ez dago modernoa izateko nahirik», argitu zuen Saizarbitoria.

Hizkuntza gaur egunera ekarri baino nobela bera zaharberritu dute Etkezaretak eta Josu Zabaletak. «Euskarak

bere garaian zeukan ezintasuna gorde egin da. Zakarkeriak, hizkuntzaren trakeskeriak, oso bereak direnak, utzi egin dira orduan bezala. Artegitzen egiten den moduan, euskarari kapaz kapa garbitu zaizkio berniak. Txalogarria da egindakoa, lan delikatua benetan», esan zuen atzo Muñozek. Haren hitzaurrea nabarmendu zuten idazleak zein editoreak.

Beste hainbat gairi buruz hitz egiteko abagunea hartu zuen Saizarbitoria. «Euskal eremuan eta kultura guztietan desagertu egin da garai haietan zegoen goi literaturaren eta herrikoiaeren -adibidez, Marcial Lafuente Stefania eta Corin Tellado- arteko muga. Batu egin da. Ez da produzitzen behe mailako literatura-rik; maila altxatu egin da. Baina aldi berean espermentalizazioa egiteko leku gutxiago dago hizkuntza gehienetan. Literatura kultuan errazagoa zen gauza berriak egitea. Orain gustatzeko eskakizuna du irakurleak. Lehen gutxi saltzen zirenak nahi genituen, orain kutrea da. Literatura ona egiten da orokorrean», egin zuen gogoeta.

«Idazleak ez zuen masarentzat idatzi behar. Ze hitz itsusia! Ibon Sarasolaren onespina lortzeko idatzen nuen nik», aitortu zuen. Edizioaren kariatara liburua berriz irakurri duen galdetuta, horra erantzuna: «Ez. Guztiekin gertatzen zait gauza bera. Ez dut sekula irakurri nobela bat; gogorra egiten zait».